



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko irailaren 16a

87 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa, foru parlamentari José Luis Uriz Iglesias, Isabel Arboniés Bermejo, José Andrés Burguete Torres eta Begoña Errazti Esnal jaun-andreek aurkeztua (3. or.).

C SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

—Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2002ko eztabaida egin dadin (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bi hilabeteko epean katalogo bat ezar dezan, zeinean jasoko baita tentetzearen disfuntzioari lotutako zer patologia finantzatu daitekeen ahotik hartzen diren botiken bidez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (8. or.).

—Mozioa. Nigeriako Gobernuak premiatzea, haren enbaxadorearen bidez, Amina Lawal absolbitzera inputatzen zaizkion delituetatik eta Nigeriako iparralde osoan aplikatzen den Xaria Legea indargabetzera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da behar diren neurriak hartzera ikastetxe publikoek aukeren berdintasuna eta ezberdintasunen konpentsazioa bermatuko duen kalitatezko irakaskuntza bat eskaini ahal izan dezaten, foru parlamentari Mariné Pueyo Danso andreak egina (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuak premiatzen du Langabeziaren ondoriozko babes-sistema eraldatzeko eta laneragarritasuna hobetzeko presako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 5/2002 Legegintzako Errege Dekretua erretira dezan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Munduko Pilota Txapelketaren kostuari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egin (13. or.).
- Galdera, legionelosiarri aurea hartu eta kontrolatzeko uztailaren 27ko 909/2001 Errege Dekretuaren bete-tzeari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egin (13. or.).
- Galdera, eremu mistoko euskararen erabilerari buruz emaniko arauak aplikatzeko jarduketa planari buruzkoa, foru parlamentari Felix Puyo Rebollo jaunak egin (14. or.).
- Galdera, NA-10.074 ehiza-barrutiari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egin (15. or.).

I SAILA:**Parlamentuko Jarduera:**

- 2002ko abuztuan egindako bilerak (16. or.).
- 2002ko abuztuan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (16. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, foru parlamentari José Luis Uriz Iglesias, Isabel Arboniés Bermejo, José Andrés Burguete Torres eta Begoña Errazti Esnal jaun-andreek aurkeztua indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1go. indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2gn. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko irailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko 22/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Parlamentuko Osoko Bilkurak Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen 2002ko ekainaren 27an. Legeak hainbat neurri jasotzen ditu gizartearen

hainbat alorretan –hezkuntza, osasuna, informazioa, lana eta abar– indarkeria sexistari aurrea hartzeko eta haren biktimei babesa emateko.

Halere, aipatu legean ezarritako neurriak ez dira aski mota horretako indarkeriarekin lotutako alderdi guztiak arautzeko.

Hori dela-eta, behean sinatzen dugun talde parlamentariok ondoko artikulua sartzea proposatzen dugu aldatu nahi den lege horretan, indarkeria sexistaren arazoari buruzko alderdi guzti-guztiak jasotzen dituen lege integral bat taxutzearren.

Artikulu bakarra.

Ondotik adierazten diren aldaketak –ondotik ematen den testuarekin hain zuzen ere– egingen dira Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko Foru Legeko artikulua, idatz-zati eta xedapenetan.

6. artikulua. 5. idatza-zatia gehituko da.

Egoki iritziz gero, Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiak foru lege honetan hezkuntza arlorako ezarritako neurrien garapenari buruzko informazioa jaso ahal izanen du Nafarroako hezkuntza sistemari buruzko urteko txostenean, edo bestela, informazio berariazkoa eman ahalko du.

9 bis artikulua.

9 bis artikulua berri bat eransten da:

“9 bis artikulua. Emakumeari laguntzeko zentroak.

1. Nafarroako Gobernuak bermatu egingen du egungo emakumeei laguntzeko zentroi eutsiko zaiela, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean laguntza orekatua emateko behar den zerbitzu espezializatuen egiturarekin.

2. Hogeita mila biztanle baino gehiago dituzten herriek emakumeari laguntzeko zentro bat edukiko dute gutxienez ere. Merindade buruetan ere

zentroak egonen dira. Betiere, zerbitzu hori Foru Komunitate osoan bermatuko da.

3. Emakumeari laguntzeko zentroak lankidetzan estuan arituko dira zerbitzu sozialekin, osasun zerbitzuekin, eskola orientazioko zerbitzuekin eta larrialdietarako eta herritarren segurtasunerako zerbitzuekin, indarkeria-egoerak antzeman eta haiei aurrea hartzeko. Halaber, herritar guztiei zuzenduriko genero berdintasuneko programak eginen dira.”

12 bis artikulua.

12 bis artikulua berri bat eranstean da:

“12 bis artikulua. Indarkeria sexista kontrolatzeko arazoak dauzkaten pertsonentzako laguntza psikologikoko zerbitzua.

Foru Komunitateko administrazioak abian jarriko du indarkeria sexista kontrolatzeko arazoak dauzkaten pertsonentzako doako laguntza psikologikoko zerbitzu bat, haiek berrezi eta gizartearen berregokitzeko.

Jarraitu beharreko tratamenduaren mota eta iraupena programaren profesional arduradunek erabakitzen dituztenak izanen dira.”

12 ter artikulua.

12 ter artikulua berri bat eranstean da:

“12 ter artikulua. Familia-bitartekotza.

1. Familiaren arloko departamentu eskudunak doako bitartekotza-programak eskainiko ditu ezkontideen arteko krisi egoeran edo bikotea hausten denean gerta daitezkeen arazoei konponbidea emateko.

2. Familia-bitartekotza izanen da, ondorio hauetarako, espezialistek arlo psiko-sozio-familiarran egiten duten jarduketan, bikotearen bereiztearekin, dibortziatearekin, ezkontzaren deuseztasunarekin edo bikotearen batasuna haustearekin loturiko alderdietan adostasun puntuak bilatzera bideratua, aldean arteko balizko arazo edo gora-beherak saihesteko.”

15 bis artikulua.

15 bis artikulua berri bat eranstean da:

“15 bis artikulua. Doako laguntza juridikorako eskubidea

1. Indarkeria sexistaren edo eraso sexualen biktima guztiei laguntza eta ordezkarietza juridikorako, izaera horretako delituengatik prozedurarako akusazio ekintzarako eta faltengatik epaiketetan abokatu baten laguntza doakoa izateko eskubidea aitortzen zaie.

2. Halaber, eskubide horretan sartzen dira bikotea bereizteko, ezkontza deuseztatze edo dibortziateko alde aurretiko behin-behineko neurrien eskaria, egitatezko bikoteetan zuhurtasuneko neurrien eskaria eta babes neurrien eskaria.

3. Halaber, laguntza juridikoa doakoa izanen da xede nagusia delitu ekintza baten ondorioz aitorturiko eskubideak administrazioari eskatzea xede duten prozeduretan.

4. Ahaleginak egiten dira biktimaren defentsa juridikoaz legegari bera arduratzeko, antzeko indarkeria ekintzen ondoriozko prozesu guztietan.

5. Doako laguntza juridikoa biktimaren baten heriotzaren ondorioz kalteturiko oinordekoei edo, biktima ezgaiturik badago, legezko ordezkariari aplikatuko zaie.

6. Zerbitzua abokatuen elkargo ofizialekin itunduz gero, horiek indarkeria sexistako kasuetarako ofiziozko txanda bat eduki beharko dute. Txanda horretan sartzeko, prestakuntza edo trebakuntza ikastaro batzuk gainditu beharko dira, derrigorrez ezarriko direnak.”

16 ter artikulua.

16 ter artikulua berri bat eranstean da:

“16 ter artikulua. Herri ekintza.

1. Foru Komunitateko administrazioa eta toki entitateak, berdintasunaren aldeko organismoen edo beren xedeen artean emakumearen eskubideen defentsa duten entitate eta elkarten bitartez, herri-ekintzaz baliatuko dira indarkeria sexistako kasu larrietan, baldin eta biktimak hori eskatzen badu edo delitu ekintzak biktimaren heriotza badakar.”

18 bis artikulua.

18 bis artikulua berri bat eranstean da:

“18 bis artikulua. Abegi etxeak edo larrialdietarako pisu edo zentroak.

1. Abegi etxeak edo presako larrialdietarako pisu edo zentroak familia etxea abandonatzea erabaki edo babesik gabe egon eta indarkeria sexistaren biktima diren emakumeentzako eta haien karguko adingabeentzako abegi baliabideak dira.

2. Baliabide horiek erabiltzeko, ez da beharrezkoa izanen eraso-egilearen aurkako salaketarik jartzea.

3. Bi baliabide zentro horietan, diziplina anitzeko taldeak arituko dira lanean. Talde horiek laguntza emozional eta psikologikoa eman, egin beha-

rreko kudeaketei buruz aholkatu eta etengabeko lagun egitea eskainiko dute biktima bertan dagoen bitartean.

4. Abegi etxeak edo larrialdietarako pisu edo zentroak gutxienez Iruñean, merindade buruetan eta mendi eskualdeetan ezarriko dira.

5. Abegi etxeek eta larrialdietako pisu edo zentroek bermatu egin beharko dute bertan hartutako emakume eta adingabeei beharrezkoa duten konpainia egiteko eta esku hartzeko izanen direla profesionalak 24 orduz.”

21 bis artikulua.

21 bis artikulua berri bat eransten da:

“21 bis artikulua. Etxebizitza eskuratzea.

1. Indarkeria sexistaren biktima izan eta egoaldia bukatu abegi etxeetatik joaten diren emakumeek doako behin-behineko lojamendu bat edukitzeko laguntza ekonomikoetarako eskubidea izanen dute, haien gizarte- eta lan-egoerak hala eskatzen badu. Laguntza horien zenbatekoa eta haiek emateko prozedura erregelamendu bidez ezarriko dira.

2. Lehentasunezko eskubidea babes publikoko etxebizitzak erosi eta alokatzeko eta babes sistema berezi bat ere aitortzen zaie, erregelamenduz ezarriko diren baldintzetan, tratatu txarren biktima izan diren emakumeei.

Azken xedapenak

Azken xedapen berri bi gehitzen dira –lehenbizikoa eta bigarrena izanen lirateke–, eta horrenbestez, aldatu nahi den testuko azken xedapena hirugarrena izatera pasako litzateke.

“Azen xedapenak

Lehenbizikoa. Foru lege hau argitaratu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak legea garatzeko erregelamendu bat emanen du.

Aldez aurretik, erregelamendu proiektua hila-betez jendaurrean jarriko da.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak urtebeteko epea izanen du gehienez ere, foru lege hau argitaratzen denetik aitzina, bertan jasotzen diren neurriak garatzeko. Horretarako, foru lege hau garatzeko beharrezkoak diren diru-aurreikuspenak eginen ditu urteko aurrekontu orokorretan Nafarroako Gobernuak.

Hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.”

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

C saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2002ko eztabaida egin dadin

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Biltzarreko Erregelamenduko 196 bis artikulua xedatutakoarekin bat, Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Foru Komunitateko egoeraren gaineko 2002ko eztabaidari buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko tramitera onartzea.

2. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko irailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Gobernuaren komunikazioa, Foru Komunitatearen egoerari buruzko 2002ko eztabaida egin dadin

Gobernu Kontseiluak, irailaren 2an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuari Foru Erkidegoaren egoerari buruzko eztabaida egin dezan eskatzea erabaki zuen. Legegintzako azken urtean gaude, eta horrek beharrezko egiten du Biltzarren gehiengoaren babesa jaso zuen programaren betetzea balioestea. Dakizuenez, programa hark ondoko ardatz eta helburuak izan zituen:

1) Nafarroa autonomo eta berezituia.

1.1 Identitatea eta autogobernua.

1.2 Foru Hobetzea.

1.3 Indarkeria eta terrorismoa.

2) Enplegua eta berrikuntza.

2.1. Lan harremanak.

2.2. Industria politika, I+G+B.

2.3. Inbertsioa sustatzeko zerga politika.

2.4. Merkataritza garapena.

2.5. Kalitatean oinarritutako turismo ereduaren bultzada.

3) Ongizatearen Nafarroa

3.1. Kontsumitzailea, politika publikoen protagonista.

3.2. Nafarroa, aitzindari osasun arloan.

3.3. Hezkuntza, etorkizunaren berme.

3.4. Kulturaren aldeko apustu estrategikoa.

3.5. Kirola, ongizate eragilea.

3.6. Beharriaz egokitutako gizarte-laguntzako etxebizitza politika, abagunetik nahiz espekulazioz urrundua.

4) Nafarroa solidarioa.

4.1. Nafarroatik kanpoko beharriaz laguntzen dien gizarte. Garapeneraren nahiz inmigrazioaren aldeko laguntza.

4.2. Gure zaharreganako goxotasuna.

4.3. Familia, gizarte bizitzaren ardatz.

4.4. Minusbaliatu eta baztertuekiko gizarte arduratsua.

4.5. Eskubide eta aukera berdintasuna bultzatzen dituen gizarte.

5) Nafarroa, lurralde orekatua eta gizarte-kohesioa duena.

5.1. Produkzio sektore indartsu eta lehiakorra

5.2. Industri, merkataritza eta kultur azpiegiturak eskualde guztietan.

5.3. Ingurumen jasangarria.

5.4. Toki administrazioentzako laguntza.

5.5. Lurralde-estrategia egituratzailea.

Nafarroa berritzaile eta lehiakorra.

6.1. Azpiegiturak, ardatz egituratzaile eta etorkizuneko garapenerako ardatz.

6.2. Telekomunikazioen aldeko apustua.

6.3. Administrazioa modernizatzea, aldaketa eragilea den aldetik.

6.4. Eutsitako hazkunde ekonomikora zuzendutako politika, diru publikoen egonkortasun eta orekan oinarrituta.

Alderdi politikoen legea dela-eta azken aldi honetan izandako gertakizunek kapitulu berezia

meretziko dute zalantzarik gabe eztabaidan. Epai-
learen erabaki bidez jarduerak eten zaizkion talde
bat dugu gure Parlamentuan, eta horrek zenbait
ekintza eta konpromiso politiko hartzera behartu-
ko gaitu –betiere babes juridikoarekin eta gure
erakundeei zor zaien errespetuarekin–, herritarren
askatasuna, segurtasuna, bizikidetasuna eta
demokrazia bermatzeko eta edozein indarkeria-
adierazpide baztertu, isolatu eta borrokatzeko.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bi hilabeteko epean katalogo bat ezar dezan, zeinean jasoko baita tentetzearen dis-funtzioari lotutako zer patologia finantzatu daitekeen ahotik hartzen diren botiken bidez

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bi hilabeteko epean katalogo bat ezar dezan, zeinean jasoko baita tentetzearen dis-funtzioari lotutako zer patologia finantzatu daitekeen ahotik hartzen diren botiken bidez".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lehendakaritza, Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko irailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, tentetzearen dis-funtzioa tratatzeko ahotik hartzen diren botikak sistema publikoak finantzatutako sendagaien katalogoan sartzeari buruzkoa, kasuko batzordean eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena:

Tentetzearen dis-funtzioak 25 eta 70 urte bitarteko gizonezkoen % 12ri eragiten dio; hortaz, Nafarroan 25.000 bat gizonezko pairatzen du patologia hori.

Tentetzearen dis-funtzioa tratatzeko ahotik hartzen diren botikak ez daude sistema publikoak finantzatutako sendagaien katalogoan, eta hortaz, askoz ere garestiagoak dira.

Paraplejia, diabetesa, esklerosi anizkoitza edo prostatektomia erradikala beharrezkoa izan den patologiarekin bat duten gaixoen patologiarekin bat tentetzearen dis-funtzioa izan ohi da. Horien tratamendurako ez da kontuan hartzen alderdi hori, baina bai hartzen da kontuan beste sintoma batzuei begira; izan ere, gernu-ihesaren eta gisa honetako patologietan gertatu ohi den hipertentsioaren tratamendua sistema publikoaren kontura egiten da.

Gure inguruko zenbait herritan oso-osorik ordaintzen da tentetzearen dis-funtzioaren tratamendua, eta Frantzian, esate baterako, patologia batzuetan dirulaguntzak ematen dituzte.

Sexualitatea ezin da luxuztat hartu, eta konponbideak eman behar dira, patologia hori dutenek askatasun osoz gozatu ahal izan dezaten sexualitatea, uko egin behar izan gabe oinarriko giza eskubidea den horri. Kontraesana ere bada, zeren, aho bidezko tratamenduek balio ez dutenean diruz laguntzen baitira gorputz leizetsu barreneko injekzioak, bai eta zakil-protesiak ere, tratamendu batek ere balio ez badu.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Bi hilabeteko epean katalogo bat ezar dezan, zeinean jasoko baita tentetzearen dis-fun-

tzioari lotutako zer patologia finantzatu daitekeen ahotik hartzen diren botiken bidez.

2. Ezarri beharreko neurriak ezar ditzan sendagai horiek Nafarroako Osasun Zerbitzuak finantzatzen dituen sendagaien katalogoan sartzeko,

katalogoan sarturik dauden patologien tratamenduari begira.

Iruñean, 2002ko irailaren 3an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Nigeriako Gobernua premiatzea, haren enbaxadorearen bidez, Amina Lawal absolbitzera inputatzen zaizkion delituetatik eta Nigeriako iparralde osoan aplikatzen den Xaria Legea indargabetzera

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Nigeriako Gobernua premiatzea, haren enbaxadorearen bidez, Amina Lawal absolbitzera inputatzen zaizkion delituetatik eta Nigeriako iparralde osoan aplikatzen den Xaria Legea indargabetzera".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lehendakaritza, Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko irailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Askotarikoa-Batzarre Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Aurrena Sariya Hussein, hurrena Amina Lawal. Bi emakume nigeriar horiek harrika hiltzera kondenatu zituen Nigerian Sokoto Estatuko Xaria-ko Auzitegiak.

Amnesty Internationalen kanpainak izandako oihartzunari eta lortutako babesari esker Safiyaren absoluzioa lortu zen. Amina Lawalen kasuan, ordea, ez da halakorik gertatu, eta hiltzera kondenatu dute, alabari titia eman ahal izateko exekuzioa atzeratu badute ere.

Harrikatzea, zalantzarik gabe, mina eta muturreko oinazea nahita eragitea da, nahiz eta Torturaren aurkako Hitzarmenak –Nigeriako Errepublikak Federalak 2001eko ekainaren 28an berretsi zuen– pertsona guztiak babestu horren aurrean. Parlamentu honek baldintzarik gabe egin behar dio aurre zigorkatzea, gorputz-adarrak ebakitzea eta harrikatzea zigor gisa erabiltzeari, zigor krudel, anker eta laidogarriak direlako nazioarteko zuzenbidearen argitan, Nigeriak sinatu eta berretsitakoa barne.

Praktika horiek, oro har giza eskubideen aurkakoak izateaz gainera, emakumeen oinarri-oinarriko giza eskubideen aurkako eraso ere badira; izan ere, inplikaturako pertsonaren sexua zein den zigorra era batekoa edo bestekoa denez, gisa horretako ekintzek emakumeen duintasunari egiten diote eraso zuzen-zuzenean. Adulterioa leporatu zaion emakumeak bere errugabetasuna frogatu behar du, baina gizonak, aldiz, nahikoa du bere hitza.

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamenak aurkeztu ditut osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nigeriako Gobernua premiatzea, haren enbaxadorearen bidez, Amina Lawal inputatzen zaizkion delituetatik absolbitzera eta Nigeriako iparralde osoan aplikatzen den Xaria Legea indargabetzera.

2. Espainiako Gobernua premiatzea asiloa era automatikoan eman diezaien Nigeriatik Espainiako kostetara heltzen ari diren etorkin haurdunei, beraien herrian, Amina Lawali bezala, Xaria Legea aplikatu eta harrika hiltzera kondena dezaketen beldur.

Iruña, 2002ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak hartzera ikastetxe publikoek aukeren berdintasuna eta ezberdintasunen konpentsazioa bermatuko duen kalitatezko irakaskuntza bat eskain ahal izan dezaten

FORU PARLAMENTARI MARINÉ PUEYO DANSO ANDREAK EGINA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behar diren neurriak hartzera ikastetxe publikoek aukeren berdintasuna eta ezberdintasunen konpentsazioa bermatuko duen kalitatezko irakaskuntza bat eskain ahal izan dezaten".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lehendakaritza, Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko irailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko foru parlamentari independentista Mariné Pueyo Danso andreak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, ikastetxe publikoek aukeren berdintasuna eta ezberdintasunen konpentsazioa bermatuko duen kalitatezko irakaskuntza bat eskain ahal izateari buruzkoa, Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatu eta onets dadin.

Zioen Azalpena

Foru erkidegoa da ikastetxe pribatuen ia % 100 hitzarturik duen bakarra, derrigorrezko hezkuntzan ez ezik, baita Haur Hezkuntzako 2. zikloan, Batxilergoan eta Lanbide Heziketako erdi mailako nahiz goi mailako prestakuntza zikloetan ere –ziklo horiek ez dira derrigorrezkoak–.

Espainiako Konstituzioak nahiz legeria indardunak aginduta, hezkuntzako administrazio publi-

koek doako sare publikoa mantendu behar dute, bermatu eginen dituen herritarrek dituzten esku-bideak, hala nola hezkuntza, aukera berdintasuna eta ezberdintasunen konpentsazioa.

Hori horrela bada, sare pribatua publikoaren lagungarri izan beharko litzateke, eta soilik finantzatu beharko lirateke sare publikora heltzen ez diren herritarrak hartzen dituzten ikastetxe pribatuetako derrigorrezko hezkuntzako unitateak, eta hitzartutako ikastetxe pribatu horiek zorrotz bete behar dituzte publikoei eskatzen zaizkien betebeharrak.

Halere, eskuartean darabiltzagun hainbat datu ekonomiko aztertu ondoren eta zenbait ikastetxe publiko egiten ari den eskaerak aintzat hartuta, Nafarroan baliabideak ikastetxe pribatuen mesedetan eta publikoen kaltetan erabiltzen ari direla jabetu gara, eta hartara, hezkuntzako administrazio publikoa legeria indardunak agindutakoa urratzen ari dela.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hartu beharreko neurriak har ditzan, ikastetxe publikoek aukeren berdintasuna eta ezberdintasunen konpentsazioa bermatuko duen kalitatezko irakaskuntza bat eskain ahal izateko behar dituzten baliabideak izan ditzaten, ikastetxe pribatuen finantziarioa gorabehera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean txosten bat aurkez diezaion Nafarroako Eskola Kontseiluari, aztertu eta ebaluatu dezan. Txosten horretan alderatu eginen da ikastetxe pribatuen eta publikoen finantzaketa, eta ikastetxe pribatuen azken bost urteotako finantza-sistemaren balantzea eginen da, kontzeptu guztiak aintzat hartuta.

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: Mariné Pueyo Danso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuia premiatzen du Langabeziaren ondoriozko babes-sistema eraldatzeko eta laneragarritasuna hobetzeko presako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 5/2002 Legegintzako Errege Dekretua erretira dezan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuia premiatzen du Langabeziaren ondoriozko babes-sistema eraldatzeko eta laneragarritasuna hobetzeko presako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 5/2002 Legegintzako Errege Dekretua erretira dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 9an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Lehendakaritza, Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko irailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean eta presako tramitazioa baliatuz, ondoko mozioa aurkeztu du. Horren bidez, babesa ematen die UGT eta CCOO sindikatuen aldarrikapenei eta sindikatu horiek Espainiako langile guztientzat heldu den urriaren 5ean Madrilen deitu duten ekintza sindikalari.

Zioen azalpena

Maiatzaren 24ko 5/2002 Legegintzako Errege Dekretuan jasotzen diren neurriek, oro har, langileen eskubide historikoetan atzera egitea dakarte; izan ere, lanean aritu ziren bitartean kotizatutako prestazioa jasotzeko eskubidea larriki mugatzen zaie langabetuei, batez ere aldizkako lan-kontratu finkoa izan dutenei. Espainia da Europako Bata-sunean langabetu tasa altuenetakoa izaki gizarte babesean gutxien gastatzen duenetakoa —azken lau urteotan 1,7 bilioi pezetako kuota-soberakina izan du—, eta hala eta guztiz ere, neurri hori abian jarri da.

5/2002 Legegintzako Errege Dekretu horretako neurriek merkeago eta errazago bihurtzen dute irazpena, bereziki enpleguan antzinasun gutxien duten langileena, kendu egin baitute irazpen bidegabeko tramitazio-lansaria. Neurri hori ez dator bat aldibatekotasun-tasak gutxitzeko behararekin; egoera horretan dago gure herrian lan egiten dutenen % 31, eta batez ere emakume langile eta gazteei eragiten die.

Neurri horiek, tokiko garapena bultzatu eta erraztu beharrean eta langabezia maila altuko udaletan enplegu modu berriak sustatu beharrean, bultzatu egiten dute langabetuek herritik alde egitea, eta horrek udal horien pobretzea eragiten du.

"Jarduteko konpromisoa" deiturikoak kalitate gutxiko eta kualifikazio nahiz soldata baxuagoko enpleguak onartu beharra dakar, langabezia prestazioa jasotzeko eskubidea galtzeko mehatxupean.

Nekazaritzako soldatako langileak ere diskriminatzen ditu Gizarte Segurantzako erregimen orokorreko langileekin konparatuta, langabeziako sorospena jasotzeari begira.

Enplegu egonkor, seguru eta kalitatezkoak lehen mailako lehentasuna izan behar du, eta abian jarri behar dira neurri zehatz, erreal eta eraginkorrak aurre egiteko enplegu bakar baterako behin-behineko kontratuen kate ez-zilegiaren bidez egiten den iruzur maila altuari eta justifikaziorik gabeko aldibatekotasun gehiegizkoari, zeina kotizazioak igoz zigortu behar baita. Langileek, kotizazioen bidez, kotizaziopeko prestazioa jasotzeko eskubidea zabaltzeko nahikoa funts sortzen dute, hura jasotzeko kotizazio epea 180 egunetara murrizteraino. Halaber, beharrezkoa da langabeziako sorospen eskubidea aitortzea 45 urtetik gorako langabetuei, luzaroko langabeei, familia-zama duten langabetuei eta guraso bakarreko familiei. Bestalde, laneo istripuen maila neurrigabea enpleguaren behin-behinekotasunaren ondorio zuzena da, eta horrenbestez, sindikatuek eskatzen dutenari jarraikiz, nahitaezkoa da Laneo arriskuei aurrea hartzeari buruzko legea egiaz-

ki betetzeko presako ekintza bat abian jartzea eta betetze hori bermatzeko lege-aldaketak egitea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak, nafar guztien interesen defentsan, erabaki du:

Espainiako Gobernua premiatzea maiatzaren 24ko 5/2002 Legegintzako Errege Dekretua erretirara dezan.

2. Babesa ematea maiatzaren 24ko 5/2002 Legegintzako Errege Dekretua erretiratzeko aldarrikatzearen sindikatuek eginen duten ekintza sindikalari, eta Nazioko Gobernuaren eta gizarte eragileen artean negoziazio prozesua lehenbailehen abian jar dadila, eta hartara, gure herrian gizarte-elkarrizketa berreskura dadila eskatzea.

Iruñean, 2002ko irailaren 5ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

F saila:
GALDERAK

Galdera, Munduko Pilota Txapelketaren kostuari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Munduko Pilota Txapelketaren kostuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EAJ/PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduen babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta

Gazteri Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Aurtengo irailaren 6an Munduko Pilota Txapelketari buruzko galdera bat egin nion zuzentzen nattaion departamentu berari. Departamentuaren erantzuna osatugabea zenez gero, ondokoak jakin nahi ditut:

Zenbateko kostua izan du azkenean munduko txapelketak? Zehaztu kostua kapituluz kapitulu.

Zenbat diru jarri du Foru Gobernuak txapelketarako?

Txapelketa telebistaz emateko Foru Komunitateko gobernuaren eta RTVEren artean lortutako akordioaren kopia igortzea nahi dugu.

Iruñean, 2002ko irailaren 2an.

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Galdera, Legionelosiari aurea hartu eta kontrolatzeko uztailaren 27ko 909/2001 Errege Dekretuaren betetzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Legionelosiari aurea hartu eta kontrolatzeko uztailaren 27ko 909/2001 Errege Dekretuaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, osasun gaietako eledunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko.

Legionelosiari aurea hartu eta kontrolatzeko irizpide higieniko-sanitarioak ezarri zituen uztailaren 27ko 909/2001 Errege Dekretuak zenbait kontrol nahiz desinfekzio neurri zituen ura hornitzeko instalazio, klimatizazio, aire eta ur kutsadura,

depositu, eraikin, igerileku klimatizatu, taldean erabiltzeko hidromasajeko bainuontzi eta abarretarako, eta orobat zehaztu zituen zer mantentze eta kontrol prozedura jarraitu behar diren.

Aipatu errege dekretua Estatuko erkidego guztietarako oinarritzko araua da irizpide tekniko-sanitarioei begira. 14. artikulua –instalazioen tratamendurako substantzia eta prestakin kimikoak– ezartzen du ezen aurrea hartu eta kontrolatzeko tratamenduak egiten dituzten enpresek izena emanda egon behar dutela kasuan kasuko autonomia erkidegoko pestizida-zerbitzu eta –establezimenduen erregistro ofizialean eta horren kariatara kasuko autonomia erkidegoak proposatuta Osasun eta Kontsumo Ministerioak homologatzen dituen ikastaroak egin behar dituela

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak jarri al ditu martxan ikastaro berariazkoak dekretu horretan aipatu eta Foru Komunitatean dauden instalazioetan legionelosiari aurrea hartu eta kontrolatzeko tratamendu berariazkoak egiteko langileak prestatzeko?

Kasuko erregistroan izena emandako zenbat enpresa nafarrek dute baimena 909/2001 Errege Dekretuari jarraikiz legionelosiari aurrea hartu eta kontrol tratemenduak egiteko eta kasuko ziurtagiria emateko?

Zer baliabide ditu Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatean taldean erabiltzeko eraikinen barruan nahiz kanpoaldean ura erabili edo aerosolak produzitzen dituzten instalazioak ikuskatzeko? Instalazio guztiek al dute kasuko mantentze-erregistroa? Kontratutako enpresa guztiek al dute ziurtagiria?

Erantzukizuna instalazioen titularrena denez, zer kontrol ari da egiten Nafarroako Gobernuak eraikin, ospitale, ikastetxe, gizarte- nahiz osasun-etxe eta kirol instalazio publikoetan, aipatu dekretua aplikatzen ote den jakiteko?

Iruñean, 2002ko irailaren 2an

Foru parlamentaria: Isabel Arboniés Bermejo

Galdera, eremu mistoko euskararen erabilerari buruz emaniko arauak aplikatzeko jarduketa planari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI FELIX PUYO REBOLLO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari Felix Puyo Rebollok eremu mistoko euskararen erabilerari buruz emaniko arauak aplikatzeko jarduketa planari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Foru parlamentari Felix Puyo Rebollok, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak, 2001eko urtarrilaren 8an egindako bilkuran, "Eremu mistoko euskararen erabilerari buruz emaniko arauak aplikatzeko jarduketa plana" onetsi zuen. Plan horren onespina Nafarroako Administrazio Publikoetan euskara-

ren erabilera arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuan jasotzen diren jarduretako bat da. Dekretu hori orain dela gutxi baliogabetu dute justizia auzitegiek.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi da:

Plan hori betetzearren bide seinaleen arloan egindako jarduketan zerrenda, zehaztuta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak kontrolatzen duen nahiz hura titularra den autobide, autobia, errepide edo bide sareko seinaleetan egindako errotulazio-aldaketa guzti-guztiak.

Arestian aipatutako jarduketa horietako bakoitzaren kostua eta kostu hori aurrekontuko zein lerrori egotzi zaion.

enduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuan eta hura garatzeko ondotik emandako xedapenetan ezarritakoari jarraikiz Nafarroako Foru Komunitateko administrazioiko lanpostuak betetzeko egin diren deialdien zerrenda.

Iruñean, 2002ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Felix Puyo Rebollo

Galdera, NA-10.074 ehiza-barrutiari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko irailaren 9an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak NA-10.074 ehiza-barrutiari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko irailaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariari, idatziz erantzun dezan.

NA-10.074 ehiza barrutia baimentzeko administrazio baldintzei buruz gure taldeak eginiko galdera baten erantzuna jaso genuen aurtengo ekainaren 27an.

Hartan adierazi zitzaigunez, departamentua, kasualitatez, hainbat espediente berrikusten ari zen, aipatutakoa besteak beste. Ez-betutzerik kausituz gero, baimeneko baldintzak exijituko direla esaten da.

Lehendabizikoa.- Bukatu al du departamentuak espedienteak berrikusteko barne lana, eta horien artean, NA-10.074 ehiza barrutiarena?

Bigarrena.- Hala baldin bada, zer ondorio atera ditu? Betetzen al dira barrutia baimentzeko jarri ziren baldintzak?

Hirugarrena.- Bukatu ez baldin badu, noizko egonen da bukatuta espediente horren berrikuspena?

Laugarrena.- Zer neurri hartuko du zure departamentuak bizilagunei, ibiltariei, txangozaleei eta oro har jendeari Peña mendiaren gailurrera iritsi ahal izanzen direla bermatzeko?

Iruñean, 2002ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: José M.^a Aierdi Fernández de Barrena

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

2002ko abuztuan egindako bilerak**MAHAIA**

14an.

MAHAIA ETA BOZERAMAILEEN BATZARRA

5ean.

2002ko abuztuan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

1ean:

– Nafarroako Kontseiluko lehendakariaren ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariak "Langabeziaren ondoriozko babes-sistema eraldatzeko eta laneragarritasuna hobetzeko presako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 5/2002 Errege Lege-Dekretuaren aurka konstituziokontraketatasun-errekurtsoa" dela-eta irizpen bat egiteko eginiko eskaria edukirik gabe utzi eta artxibatzeke agintzen da.

– Iruñeko Udalaren txostena, Arrieta 12ko erai-kineko igogailuen funtzionamenduari buruzkoa.

– Iruñeko Udalaren idazkia; horrekin batera, Iruñeko Udal Planari aurkeztutako alegazioei buruzko txostena.

– Europako Erregioen Asanbladaren idazkia. Horren bitartez jakitera ematen da erregioetako lehendakariaren eta ministroen bilkura bat egingen dela, Europako kohesio politikaren etorkizuna aztertzeke.

– Arartekoaren ebazpena, 2002. urterako plantilla organikoari buruzkoa.

2an:

– Armañanzasko Udalaren osoko bilkuraren erabakia, Lizarrako eskualdeko eskola garraioari buruz.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bitartez, lan bilera bat eskatzen du Alimentos Congelados, SA enpresa-

ko komitearekin, enpresaren egoeraren berri eman dezaten.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bitartez, Industria kontseilariaren agerraldia eskatzen du, Alimentos Congelados, SA enpresaren bideragarritasun planari buruz informa dezan.

– Galdera, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginga, Alimentos Congelados, SA enpresari buruzkoa.

– Senatuaren idazkia. Horren bitartez, eskakizunaren eskubideari buruzko parlamentu-jardueretan parte hartzeke parte hartzeke gonbitea egingen du.

6an:

– Mery Gómez Abad andrearen idazkia, Alargun Pentsioen Berdintasunaren aldeko Plataforma ordezkatuz; horren bitartez, agerraldia eskatzen du pentsioen berdintasuna aldarrikatzeko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, osasun etxeetan banatzen den koitoaren ondoko pilulari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuak egin eta Parlamentura apirilean eta maiatzean igorritako aurrekontualdaketen legezkotasunari buruzko txostena, Kontuen Ganbarak igorria.

7an:

– Murietako Udalaren osoko bilkuraren erabakia, Lizarrako eskualdeko eskola garraioari buruz.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, indarkeria sexista gertatzen denean jarduteko protokoloari buruz foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, gizarte zerbitzuen mankomunitateetako programei buruz foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriei buruzko uztailaren 2ko 26/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

8an:

– Foru Komunitatearen Administrazio Orokorak errentan hartuta dituen lokalei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak igorria.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, Nafarroako Gobernua nekazaritzari buruzko foru lege bat premiatzeko hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Cristóbal García jaunak (SPN) eginiko galderaren erantzuna.

9an:

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, Montes de Cierzoko lurretako hektarea guztien legezko egoerari buruz Nekazaritza Departamentuak eginiko txosten juridikoa eskatzen da.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, Nekazaritza kontseilariaren agerraldia eskatu du, Fitero eta Corellako lurzatiei berrantolamenduko prozesuarekin aurrera ez jarraitzeko arrazoiak azal ditzan.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, Nafarroako Futbol Federazioko lehendakariaren eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen agerraldia eskatzen dute, Nafarroan hirugarren mailako talde bat egin dadin emandako urratsen berri eman dezaten.

– Jeviten idazkia. Horren bitartez, alegazioak aurkezten ditu egoitza berrirako altzariak adjudikatzeke lehiaketa dela eta.

– Cascanteko Udalaren erabakia, Eusko Legebiltzarraren Estatutu Itunaren eguneratzeari eta ahalmenei buruzko Ebazpena dela eta.

12an:

– Indarkeria sexistaren aurkako neurri integralak hartzeari buruzko uztailaren 2ko Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, ardoaren museoaren eraikuntzari buruz foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Nafarroako Gobernua Nafarroako ardoa sustatu eta merkaturatzeko kanpaina bat egin dezan premiatzen duen erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Cristóbal García jaunak (SPN) eginiko galderaren erantzuna.

13an:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horren bidez, uztailleko zenbait aurrekontu-aldaketa baimentzen dituzten foru agindu eta erabakien jakinarazpenak igortzen ditu.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak iruzur fiskalaren aurkako planari buruz hartutako erabakia dela eta.

14an:

– ACS-ACR enpresen aldi baterako batasunak aurkeztutako idazkia. Horren bitartez, gerentziaren ordezkaria aldatu dutela jakinarazten du.

– Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunaren idazkia. Horren bitartez, Nafarroako Gobernuko kontseilariak eta zuzendari nagusiek gobernuaren partaidetza duten sozietateetan parte hartzeari buruzko informazioa eskatzen du.

– Foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunaren idazkia. Horren bitartez, Nafarroako lurraldearen antolamenduari eta hiri sistemari buruz eginiko azterketen gaineko informazioa eskatzen du.

– ACS-ACR enpresen aldi baterako batasunaren faktura, prezioen berrikuspenari dagokiona.

16an:

– Antzingo Udalaren osoko bilkuraren erabakia, Lizarrako eskualdeko eskola garraioari buruz.

– Estatuko Fiskaltza Nagusiaren idazkia. Horren bidez, Santa Polako atentatua gaitzesteko abuztuaren 5ean eginiko bilkuraren aktaren ziurtagiria eskatzen du.

19an:

– Olivenzako Udalaren erabakia, Mendebaldeko Sahararen deskolonizazioa dela eta.

– Olivenzako Udalaren erabakia, Mendebaldeko Sahararen deskolonizazioa dela eta.

– Rivas-Vaciamadrideko Udalaren erabakia, Mendebaldeko Sahararen deskolonizazioari buruz.

– Erregearen Etxeak igorritako idazkia. Horren bidez, Mendebaldeko Saharako auziari buruzko deklarazio instituzionala jaso izanaren berri ematen du.

20an:

– Galiziako Parlamentuak igorritako idazkia. Horren bidez, Mendebaldeko Saharako auziari buruzko deklarazio instituzionala jaso izanaren berri ematen du.

21ean:

– Nafarroako Auzitegi Nagusiko Fiskaltzaren idazkia. Horren bitartez, Santa Polako atentatua gaitzesteko abuztuaren 5ean eginiko bilkuraren aktaren ziurtagiria eskatzen du.

22an:

– Foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunaren idazkia. Horren bitartez, boto-asmoei buruzko inkestan Aralar alderdia sartzea eskatzen du.

– Paymo, SAren idazkia. Horrekin batera, Parlamentuaren egoitza berrirako altzariak adjudikatzeko lehiaketan eskatutako dokumentazioa.

– ACS-ACR enpresen aldi baterako batasunak aurkeztutako idazkia. Horren bitartez, entzutegia zena Parlamentuaren egoitza izateko zaharberri-tze lanei buruzko zenbait gauza jakinarazten ditu.

23an:

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, gazteen elkarten jardueretarako dirulaguntzei buruz foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sina dezan ezgaituen zentro publiko hitzartuetara-

ko Nafarroako Gobernuaren premiatzeko hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Cristóbal García jaunak (SPN) eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, etorkinei buruzko politika koordinatzeko batzorde bat sor dezan Nafarroako Gobernuaren premiatzeko hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Cristóbal García jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Idazkia, Nafarroako Gobernuarena. Horrekin batera, garapenaren aldeko lankidetzari dagokionez zenbait neurri har ditzan Nafarroako Gobernuaren premiatzeko hartutako erabakiaren betetzea zertan den jakiteko foru parlamentari Cristóbal García jaunak eginiko galderaren erantzuna.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, lan bilera bat eskatzen dute, Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluko arduradunekin, transgenikoek uzta ekologikoetan sorrarazitako kutsadura genetikoari buruzko proposamen eta azterlanen berri eman dezaten.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, lan bilera bat egitea eskatzen da, Alargun Pentsioen Berdintasunaren aldeko Plataformako kideekin, beren aldarrikapenak azal ditzaten.

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko ardoaren sektorearen ekoizpen-itxaropenei kalte egiten ahal dieten egungo arau eta lege aldaketak arbuizaten ditu.

– Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Haren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nekazaritza Politika Bateratua (NPB) aldatzeko egungo zirriborroa arbuizaten du eta Nafarroako Gobernuari haren aurka egin dezan eskatzen dio.

26an:

– Nafarroako Kontuen Ganbararen idazkia; haren bitartez, jakitera ematen du osasun gastuari buruzko txostena lan programan sartzeko ebazpena.

– Nafarroako Gobernuari buruzko idazkia. Harekin batera, SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen bitarteko izaera konpontzeko Nafarroako Gobernuaren premiatzen duen erabakiaren aplikazioari buruz foru parlamentari Begoña Errasti Esnal eta Isabel Arboniés Bermejo andreek eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, asteburuetan emakumeentzako larrialdietako laguntza bermaturik ote dagoen itauntzeko foru parlamentari María Isabel Arboniés Bermejo andreak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, koitoaren ondoko pilula zein baldintzatan banatzen den itauntzeko Batasuna Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, Fustiñanan kokaturiko Hidronorren zentroan trataturiko hondakinei buruz Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Talde Parlamentuko Taldeak eginiko galderaren erantzuna.

27an:

– 372/2000 Dekretua garatzeko Nafarroako Gobernuak eginiko jarduketari buruzko galdera, José M^a Aierdi Fernández de Barrena, José Miguel Nuin Moreno eta Milagros Rubio Salvatierra foru parlamentariak eginak.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, zenbait zentrotan 2002rako esleituriko aurrekontu bateratuari buruz Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, osasun arloko itxaron zerrendei buruz Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Horrekin batera, zenbait alderdi ekonomiko direla- eta Osasun Departamentuak Nafarroako Gobernuari igorritako dokumentuari buruz Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak eskatutako informazioa.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, zerbitzu juridikoek Batasunaren jardueren etetei buruzko txosten bat egin dezaten eskatzen du.

– Artaxoako lagunen kultur elkargoaren idazkia. Horren bitartez, abuztuaren 30erako lunche-rako gonbitea egiten da.

– MBAren idazkia, 6. loterako dokumentazioa berrikusteko baimena eskatzeko.

28an:

– Idazkia, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua. Horren bitartez, lan bileran bat egitea eskatzen du Alargun Pentsioen Berrintzuzaren aldeko Plataformako kideekin.

– Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren idazkia; horren bidez, Parlamentuaren egoitza, behin hustu ondoren, erabili ahal izatea eskatzen du.

– NavComTel-en proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko laguntza teknikoko zerbitzuaren kontratazioa dela eta.

29an:

– Osasun kontseilariaren idazkia. Horren bidez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak zenbait zuzendari eta zerbitzibururekin eskatutako agerraldian eta lan bileran parte hartuko duela jakinarazten du.

– Lehendakaritza Ministerioaren idazkia. Horren bitartez, Mendebaldeko Saharari buruzko deklarazioa jaso izanaren berri ematen du.

– Las tres marías cybercaferen proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko laguntza teknikoko zerbitzuaren kontratazioa dela eta.

– CIES, SLren proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko laguntza teknikoko zerbitzuaren kontratazioa dela eta.

– Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkezturiko osoko zuzenketa, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektuari buruzkoa.

– Foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunaren idatzia. Horren bidez, zerbitzu juridikoak Montes de Cierzoko lurren jabetza dela eta Zaragozako Unibertsitateari enkargaturiko txosteni buruzko informazioa eskatzen du.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, Nekazaritza kontseilariaren agerraldia eskatu du, Abatores aldeko lurzatiei berrantolamenduari ekitan sortutako arazoari berri eman dezan.

– Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen idazkia. Horren bitartez, Ekonomia kontseilariaren agerraldia eskatu du, Abatores aldeko lurzatiei berrantolamenduari ekitan sortutako arazoari berri eman dezan.

– Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak hobetzeko neurriari buruzko Foru Legeari buruzko galdera erretiratzeko eskaria. Cristóbal García jaunak aurkeztu du.

– Alberto Iriarte Gárriz jaunaren proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean inkesta orokor bat egiteko laguntza teknikoko zerbitzuaren kontratazioa dela eta.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bitartez, lan bilera bat eskatzen du, Nafarroako Nekazaritza Ekologikoaren Kontseiluko arduradunek transgenikoek uzta ekologikoetan sorrarazitako kutsadura

genetikoari buruzko proposamen eta azterlanen berri eman dezaten.

– Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andrearen idazkia. Horren bitartez, lan bilera bat eskatzen du Alargun Pentsioen Berdintasunaren aldeko Plataformak alargun pentsioen berdintasunaren aldeko proposamenei buruz informa dezan.

– Nafarroako Auzitegi Nagusiko Fiskaltzaren idazkia, abuztuaren 26an emandakoaren ziurtagiri osagarria eskatzen duena.

HARPIDETZAREN PREZIOA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	NAFARROAKO PARLAMENTUA
Urte bat 39,07 euro	«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	Arrieta 12, 3
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	31002 IRUÑA